

EUSKALTEL TALDEAREN INFORMAZIOAREN SEGURTASUNENKO POLITIKA

Aurkibidea

1.	XEDEA	2
2.	INFORMAZIOAREN ETA SAREAREN SEGURTASUNAREN GARRANTZIA	2
3.	INFORMAZIOAREN ETA SAREAREN SEGURTASUNENKO POLITIKA	3
4.	INFORMAZIOAREN ETA SAREAREN SEGURTASUNENKO HELBURUAK	4
5.	INFORMAZIOAREN ETA SAREAREN SEGURTASUNA KUDEATZEKO SISTEMA (SGSIR)	4
6.	FUNTZIOAK ETA ARDURA OROKORRAK	5
7.	POLITIKAREN GAINENKO AGINPIDE-DEKLARAZIOA	5
8.	GLOSARIOA	6

1. XEDEA

Informazioaren Segurtasuneko Politika honen helburua da Euskaltel Taldeak informazio-segurtasuneko politika kudeatzeko jarraibideak ezartzea, informazio-aktiboak Euskaltel Taldeak eta Euskaltel Taldearentzat ezarritako lege- eta arau-betekizunen arabera eskuratu, erabili eta zainduko direla bermatzeko informazioaren osotasunari, eskuragarritasunari, egiazkotasunari, trazabilitateari eta konfidentzialtasunari dagokienez, betiere indarrean diren legeak, araudiak eta kontratuak errespetatuz eta ezarritako jarraibideak, prozedurak eta segurtasun-arauak betez.

2. INFORMAZIOAREN ETA SAREAREN SEGURTASUNAREN GARRANTZIA

Informazioa Euskaltel Taldearen funtsezko aktibo bat da, eta behar bezala babestu behar da. Telekomunikazio-operadore gisa, gure sarea ere Euskaltel Taldearen funtsezko aktibo bat da, eta babestu egin behar da.

Hori dela eta, Euskaltel Taldearen Zuzendaritzak bere eginbehartzat dauka informazioaren eta sarearen segurtasuna bermatzea, funtsezko elementua baita zerbitzuak eta betebeharrak behar bezala betetzeko, eta, beraz, bere gain hartzen ditu politiketan eta arauetan ezarritako helburuak eta printzipioak; konpromisoa hartzen du behar diren bitartekoak emateko, langile eta kontratista guztien laguntza eskatzen du, eta bere gain hartzen du politika eta arauak ezagutu eta betetzeko motibazioaren eta prestakuntzaren erantzukizuna. Euskaltel Taldeko kide guztiek, eguneroko jardunean, informazioaren eta sarearen eta haiei lotutako aktiboen konfidentzialtasuna, osotasuna eta erabilgarritasuna segurtatu beharko dituzte, bezeroei zerbitzuen jarraitutasuna eta segurtasuna bermatzeko.

3. INFORMAZIOAREN ETA SAREAREN SEGURTASUNEN POLITIKA

Informazioaren Segurtasuneko Politika da, Gobernu Egokiaren irizpideei jarraituz, konpainiaren aktibo fisiko eta informazio funtsezkoenei babes-maila egokia emateko erreferentzia-esparrua. Politika horren arabera zehazten, kudeatzen, administratzen eta ezartzen dira konpainiaren aktibo fisikoak eta informazio-aktiboen kritikotasunak eskatzen duen babes-maila lortzeko eta arriskuak kudeatzeko behar diren mekanismoak eta prozedurak.

Segurtasun-printzipio eta irizpide hauek ezartzen ditu Euskaltelek:

- Aplikagarri dituen arauak eta legeak betetzea, eta hori izatea bere politikaren giltzarria.
- Segurtasun-neurri egokiak eskaintzea langileei, bezeroei eta kolaboratzaileei enpresako eraikinetan, informazio-sistemetan eta sarean.
- Informazioaren konfidentziasuna, erabilgarritasuna eta osotasuna bermatzeko, ezinbestekoa da babes egokia eta proportzionala ematea enpresak bere informazio-sistemetan eta sarean jasotzen, prozesatzen, biltegitratzen, sortzen eta transmititzen duen informazioari.
- Behar diren neurriak hartzea enpresaren informazio-sistemarako, eraikinetarako eta sarerako sarbidea mugatzeko, bai pertsoneri, bai objektu fisiko eta logikoei. Sarrerak kontrolatzeko sistema bat du horretarako.
- Arriskuak eta segurtasuna kudeatzeko, langileak eta kolaboratzaileak trebatzea eta kontzientziatzea, hori baita arauak eta prozedurak betearazteko oinarria. Izan ere, denoi dagokigu arriskuaren kudeaketa, eta denok egin behar dugu lan konpainiaren aktiboak egokiro babesten saiatuz. Horretarako, ezagutu, onartu eta aplikatu egin behar dira indarrean dauden segurtasun-arauak eta- prozedurak.
- Negozioaren jarraitutasuna bermatzeko, ezinbestean segurtatu behar dira eraikinen operatibitatea, informazioaren erabilgarritasuna eta hura biltzeko, prozesatzeko, biltegitratzeko eta transmititzeko sistemena eta sarearena. Horrenbestez, arriskua kudeatzeko plan, arau, prozedura eta mekanismoek bermatu behar dute arriskuen prebentzioa, krisien kudeaketa eta hondamendiei aurre egiteko ahalmena.
- Eguneroko jardueraren osagarritzat hartzea segurtasuna, eta prozesu guztietan aplikatzea, Euskaltel taldeak bezeroei ematen dizkien zerbitzuek etenik, inpaktu kaltegarriarik edo eraginkortasun-gabeziarik izan ez dezaten.
- Aztertzea, hainbatean behin, ea behar bezala betetzen diren segurtasun-politika eta hura garatzeko prozedurak, etengabe hobetzen eta arriskuak ahalik eta gehiena gutxitzen saiatuz une oro.

Politika hori gure jarduera, produktu eta zerbitzu guztiei aplikatu behar zaie, gure lantoki guztietan. Halaber, erakunde guztiari jakinarazi behar zaio, baita akziodunei, alderdi interesdunei eta, oro har, jendeari ere, eta berrikusi egin behar da, aldizka, Euskaltelentzat egokia dela egiaztatzeko.

4. INFORMAZIOAREN ETA SAREAREN SEGURTASUNEN HELBURUAK

Euskaltel Taldeak urtero ezartzen ditu informazioaren eta sarearen segurtasun-helburuak, SGSIR sistemaren irismenari dagokionez, prozedura honetan ezarritakoaren arabera: SGE-00-00-7-32-2 Helburuen definizioa eta jarraipena.

Zehaztutako helburu bakoitzerako, ekintzak proposatzen dira, beren baliabide, arduradun eta epeekin. Helburu horiei onespena ematen die Informazioaren eta Sarearen Segurtasuna Kudeatzeko Batzordeak (CGSIR).

Informazioaren eta Sarearen Segurtasuna Kudeatzeko Batzordean (CGSIR), segurtasun-helburuak betetzeko definitutako ekintzen aldizkako jarraipena egiten da, eta, beharrezkoa izanez gero, neurri gehiago ezartzen dira.

5. INFORMAZIOAREN ETA SAREAREN SEGURTASUNA KUDEATZEKO SISTEMA (SGSIR)

Euskaltel Taldeak informazioaren segurtasuna kudeatzeko sistema bat definitu du segurtasun-politika hau zabaltzeko, sistema hori betetzen dela bermatzeko beharrezkoak diren prozedurak eta erantzukizunak ere biltzen dituena.

- **Informazio-aktiboak:**
 - Informazioa eta beren eginkizun eta zerbitzuetan hura sortzen, prozesatzen, biltegitratzen eta alderdi interesdunekin (bezeroak, hornitzaileak eta beste erakunde batzuk) trukatzeko duten sistema informatikoak informazio-aktibotzat hartuko dira.
 - Informazioaren eta sarearen aktiboak behar bezala babestuko dira, haien balio eta kritikotasunaren arabera.
- **SGSIR (Informazioaren eta Sarearen Segurtasuna Kudeatzeko Sistema) eta betetzea**
 - Halaber, Euskaltel Taldeak eskaintzen dituen zerbitzuekin lotutako informazioaren eta informazio-sistemen konfidentzialtasuna, osotasuna, erabilgarritasuna, trazabilitatea eta benetakotasuna bermatu behar ditu. Horretarako, UNE-ISO/IEC 27001 arauak ezarritako kudeaketa-esparrua eta UNE-ISO/IEC 27002 'Informazioaren segurtasuna kudeatzeko jardunbide egokien kodea' arauak ezarritako jardunbide egokiak erabiliko ditu. Horretarako, politika honetan definitutako segurtasun-printzipioak eta arauak betetzeko beharrezkotzat jotzen diren arau eta prozedurak garatuko dira.
 - UNE-ISO/IEC 27001 arauarekin bat datorren SGSIR bat ezarri da, segurtasuna bere eskakizunetara egokitzen eta hobetzen jarraituko duela ziurtatzeko.
 - Euskaltel Taldeak indarrean dauden Estatuko eta Europako legeek ezarritako segurtasun-baldintzak beteko ditu.

- **Pertsonak:**

- Euskaltel Taldeko langile guztiek aktiboki hartuko dute parte aktiboen prebentzio- eta babes-kultura horretan. Horretarako, politika honen eta Taldean ezarritako segurtasun-arau eta -prozeduren arabera jokatu behar dute.
- Euskaltel Taldeak bere langileak kontzientziatu eta trebatuko ditu bere jardura eta zerbitzuak garatzeko erabiltzen eta prozesatzen duen informazioaren segurtasuna bermatzeak duen garrantziaz.
- Euskaltel Taldeari edozein motatako zerbitzuak ematen dizkieten konpainietako langileak eta hirugarrenak, baliabide informatiko eta telematikoak eta Taldearen informazioa eskura badituzte, behartuta egongo dira ekintza horietan, halaber, segurtasun-politika honetan eta beronen ondoriozko dokumentuetan ezarritako segurtasun-baldintzak betetzera.

6. FUNTZIOAK ETA ARDURA OROKORRAK

Politika honetan proposatutako helburuak ezarri eta betetzen direla ziurtatzeko erantzukizunak esleitu eta mugatzeko, beharrezkoa da informazioaren segurtasuna kudeatzeko alderdi orokorrez arduratuko diren funtzio jakin batzuk ezartzea. Horretarako, Euskaltel Taldeak informazioaren segurtasunaren arloko eginkizunak eta erantzukizunak ezarri eta dokumentatu ditu.

Sistemaren erantzukizuna Teknologia arloko zuzendariari (CTO) eta Sistemen arloko zuzendariari (CIO) dagokie. Erantzukizun hori bereizita dago segurtasunaren erantzukizunetik, bi eginkizunen arteko independentzia zaintzeko.

7. POLITIKAREN GAINEKO AGINPIDE-DEKLARAZIOA

Informazioaren eta Sarearen Segurtasuna Kudeatzeko Batzordeak (CGSIR) Politika hau betetzen dela egiaztatzeko aginpidea du, bertan jasotako jarraibide orokorrak eta jarduerak betearaztearen erantzukizuna, eta arriskuak tratatzeko planaren helburuak betetzeko eta informazioaren segurtasuna etengabe hobetzeko beharrezkoak diren ekintza zuzentzaileak planteatzeko independentzia.

Irismenean sartzen diren prozesu edo zerbitzuetan parte hartzen duten pertsona eta departamentu guztien ardura da Politika hau nahitaez betetzea. Horretarako, beharrezkoa da Euskaltel Taldeko langile guztien atxikimendua eta parte-hartzea.

Halaber, eskatu ahal izango du hornitzaileek eta hirugarrenek parte hartzea gutxienekotzat jotzen diren segurtasun neurrien aplikazioan.

Politika honen arduraduna Informazioaren eta Sarearen Segurtasuna Kudeatzeko Batzordea da (CGSIR), eta dokumentu hau berrikusi beharko du gutxienez urtean behin, testu honen balioa edo eguneratzeko beharra baloratzeko, agertu diren arrisku berrien edo informazioaren segurtasuna bermatzeko premia berrien arabera.

8. GLOSARIOA

- **Informazio-aktiboak:** Informazio-sistemen elementuak, bai baliabideak edo bai informazioa, balio esanguratsua dutenak eta Euskaltel Taldearen zerbitzuetan beharrezkoak direnak.
- **Autentifikazioa:** Informazioa eskuratu edo aldatzen duten pertsonen edo prozesuen identitatea edo haren jatorria egiaztatzeko aukera ematen duen propietatea.
- **Kanpoko laguntzaileak edo hirugarrenak:** Euskaltel Taldearen jabetzako edo administraziopeko informazioa eskuratzeko aukera duten pertsonak, baina taldearen nominako langile ez direnak.
- **Konfidentzialtasuna:** Informazioaren ezaugarri bat da baimendutako pertsona eta entitateei soilik zabaltzea informazioa, baimendutako denboran eta moduan prozesatuta.
- **Eskuragarritasuna:** Informazioaren eta Informazio Sistemen ezaugarri izan behar du eskuragarria eta egoki erabiltzeko modukoa izatea.
- **Informazioa:** Edozein biltegitratze, jakinarazpen edo jasotzeri dagokio, hala nola datuak eta iritziak, barne direla zifrak, grafikoak edo narratiboak, izan ahozkoak edo beste edozein euskarritakoak.
- **Osotasuna:** Informazioak osoa eta zehatza izan behar du
- **Informazio-sistema:** Euskaltel Taldearen baliabide informatikoak babesteko kontuan hartu beharreko hardware-, software-, antolaketa- eta administrazio-alderdiak biltzen dituen termino orokorra.



José Miguel García Fernández jauna
Kontseilari delegatua